



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15

**UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA**  
ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 10  
EGUNA: 2020/10/15  
HASIERA ORDUA: 19:03  
AMAIERA ORDUA: 19:24  
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 10  
DÍA: 15/10/2020  
HORA DE INCIO: 19:03  
HORA DE FINALIZACIÓN: 19:24  
LUGAR: Salón de Plenos del Ayuntamiento

**BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

**EH Bildu udal taldea**

Itziar Irizar  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Antxoka Elorza  
Aritz Larrañaga

**Debarren Ahotsa udal taldea**

Pedro Bengoetxea  
Ane Egidazu  
Enrique Salgado  
Isidor Lamariano

**EAJ-PNV udal taldea**

Iñigo Cambronero  
Eneritz Gomez  
Miren Esnal Laskibar

**Idazkaria:** Jorge González Endemaño

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:**

**1. Osoko bilkura hau atea itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa onartzea, hala badagokio**

**ASISTENTES:**

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

**Grupo municipal EH Bildu**

Itziar Irizar  
Antxon Etxeberria  
Nerea Arrizabalaga  
Antxoka Elorza  
Aritz Larrañaga

**Grupo municipal Debarren Ahotsa**

Pedro Bengoetxea  
Ane Egidazu  
Enrique Salgado  
Isidor Lamariano

**Grupo municipal EAJ-PNV**

Iñigo Cambronero  
Eneritz Gomez  
Miren Esnal Laskibar

**Idazkaria:** Jorge González Endemaño

**TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:**

**1. Aprobar, si procede, celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o**



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15  
propagación del COVID-19

**Bozkatu ondoren, aho batez onartzen da bilkura hau atea itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa.**

## **2. 2021eko Ordenanza Fiskalak onartzea, hala badagokio**

**Itziar:** Debako ordenantzak azken urtetan ez dute aldaketarik izan eta azken astetan eguneratze lana egin dugu, antzeko ezaugarriak dituzten herriak eredu hartuta. Bi bilera egin ditugu beste alderdiekin eta beste bi ogasun batzordetan ere landu ditugu, bertan proposamenak partekatu eta jasoz. Azken ogasun bileran adostasunez onartutako aldaketak hauek izan dira:

Adostasunez esaten dut egindako bileretan ez dugulako kontra proposamenik jaso, beraz adostasun bat egon dela esan daiteke.

Lehenengoa **OHZ** zerga. Bere hortan uztea erabaki zen, baina hutsik edo erroldarik gabeko etxe bizitzetan kobratzen zen errekargua, %50tik %75era igotzea. Igoera honen helburua etxe bizitza hutsik ez izatea da, alokairua bultzatz, batez ere gazteentzat. Eta bigarren bizitzak ez daitezzen etxe turistiko bilakatu. Herrian 600 inguru ditugu. Honekin, baita ere Deban erroldatzea sustatu nahi dugu. Foru Aldundiko laguntza erroldatuen arabera denez positiboa izan liteke.

**Sometida a votación, el Pleno aprueba por unanimidad celebrar la sesión a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19.**

## **2. Aprobar, si procede, las Ordenanzas Fiscales de 2021**

**Itziar:** Durante los últimos años las ordenanzas de Deba no han variado. Estas últimas semanas se ha llevado a cabo una actualización de las mismas. Para ello hemos tomado como referencia las de las localidades con características similares. Nos hemos reunido con otros partidos, y también hemos trabajado en otras dos comisiones de hacienda, compartiendo y recogiendo propuestas. Los cambios aprobados por consenso en la última reunión de hacienda han sido las siguientes. Digo "consenso" porque no se ha recibido ninguna propuesta en contra, por lo que se puede decir que ha habido un consenso.

En primer lugar, es el **IBI**. Se ha decidido mantenerlo, pero el recargo que se aplica en las viviendas vacías pasa del 50% al 75%. El objeto de la subida es que no haya viviendas vacías y se fomente el alquiler, sobre todo para los jóvenes, y que las segundas viviendas no se conviertan en pisos turísticos. En este momento tenemos unas 600 viviendas. Al mismo tiempo queremos fomentar el empadronamiento en el municipio. Dado que la ayuda de la Diputación depende del número de empadronados, esto podría ser positivo.



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15

**Trakzio mekanikoen ibilgailuen zerga** Antzoko herriekin begiratuta, berdintsu gabiltzanez ez dugu aldaketarik proposatuko.

**Bide Publikoen Okupazio tasa.** Hemen hainbat kasu desberdin daude: aldamioak, terrazak.... Eguneratu ditugu oso zatituta zeudelako. Ez dago aldaketa handirik, "garajetako sarbideak" izan ezik, hauek %25eko igoera dute.

**Aparkalekuen tasa-TAO.** Hemen ez dugu aldaketa esanguratsurik proposatu. 2021eko udaberrirako aparkalekuen antolaketa daukagu aurreikusita. Ordu mugak zehaztu ditugu. Udatiarrek eskuratzen duten txartela, proposatzen dugu 50€ izatea eta etxe bizitza bakoitzetik bat (lehen 25€ eta etxe bakoitzak 2).

**Hilerria.** Kasu honetan ehorzketa eta deshobiratze tasak eguneratu ditugu. Beste zerbitzuak hilerri berria martxan jartzen denean eguneratuko ditugu.

**Zaborrak.** Bere horretan utzi dugu baino bereizketa bat egin dugu lokal komertzialetan. Lokal komertzialak, komertzio bezala erabiltzen ez direnak %50eko murriketa proposatu dugu, hauetan ez baita zabor kopuru berdina sortzen.

**Kiroldegia, Gozatzu programa eta Uda Kirola.** Nahiko antzekoak dira. Teknikariaren proposamena jaso dugu eta aztertu egin dugu. Gutxi gora behera %2-%3 igoera.

**Gizarte Zerbitzuetan.** Berdin. Teknikariaren proposamena aztertu

**Impuesto de vehículos de tracción mecánica.** Respecto a poblaciones similares, la tasa es parecida, por lo que no proponemos cambios.

**Tasa de Ocupación de las Vías Públicas.** Aquí se agrupan varios casos diferentes: andamios, terrazas... Los hemos actualizado porque estaban muy fragmentados. No hay grandes cambios, salvo que los accesos a garajes se incrementan un 25%.

**Tasa de aparcamientos-OTA.** No hay cambios significativos. Tenemos previsto reorganizar los aparcamientos la primavera del 2021. Hemos definido los límites horarios. Proponemos que la tarjeta para los veraneantes sea de 50€ y una por cada vivienda (actualmente son 25€ y 2 por cada vivienda).

**Cementerio.** Hemos actualizado las tasas de inhumación y exhumación. El resto se actualizarán cuando entre en funcionamiento el nuevo cementerio

**Basuras.** Lo hemos dejado igual, pero hemos diferenciado los tipos de locales comerciales. Proponemos reducir un 50% la tasa de los locales comerciales que no se utilicen como comercio, ya que en ellos no se genera la misma cantidad de basura.

**Polideportivo, programa Gozatzu y Uda Kirola.** Son bastante similares. Se ha recibido y analizado la propuesta del técnico. Incremento aproximado 2-3%.

**Servicios Sociales.** Igual. Hemos analizado la propuesta de la técnica. Se



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15  
aplica la subida del IPC, que supondría  
un 2,4%.

dugu; KPIaren igoera aplikatzea da,  
izango litzateke %2,4.

**Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.** Miloi bat euro baino gehiagoko likidezia duen enpresei bakarrik aplikatzen zaie. 2,16tik 2,2ra proposatu dugu.

Dirubilketari dagokionez, egin ditugun aldaketak ez dira nabarmenak izango, soilik eguneratu egin ditugu. Nabarmenena OHZren errekargua izan da.

**Gilen:** Norbaitek hitza hartu nahi du?

**Enrique:** Ibilgailuen aparkalekuengoa. Geltoki Zaharrean gehienez bi orduz egitea proposatu da. Gure ustez, aukera ona izan liteke. Horrek funtziona dezana, irizpide batzuekin batera joan beharko luke, zeintzuk erabili dezaketen, eta batez ere, herritarrei jakinarazi, denok jakin dezagun plazan aparkatzea saihestu behar dela.

**Gilen:** Plaza kudeatzeko orduan planteamendu integral bat egin behar da. Ez da erraza bizitza oso bateko ohiturak aldatzea. Herritarrekin landu beharko da, eta bilera informatibo bat baino gehiago egin beharko dira azalduz zein den neurri bakoitzaren helburua eta nola funtzionatu nahi den gune bakoitzean. Erabat ados nago denborak neurtzearekin, nola hartzen ditugun erabakiak eta nola partekatzen dugun informazio hori herritarrekin. Hori da asmoa.

**Gilen:** Beste ekarpenik?

**Impuesto sobre Actividades Económicas.** Solo se aplica a empresas con una liquidez superior al millón de euros. Hemos propuesto pasar del 2,16 al 2,2.

En cuanto a la recaudación, las modificaciones realizadas han sido actualizaciones y no afectará a la recaudación. Lo más significativo ha sido el recargo del IBI.

**Gilen:** ¿Alguien quiere tomar la palabra?

**Enrique:** El tema de aparcamiento de vehículos. Se ha planteado un máximo de dos horas en la Estación Vieja. Consideramos que podría ser una opción buena pero que debería ir acompañada de criterios de quiénes puede entrar, junto con unas medidas de control para que esto funcione. Y sobre todo, comunicarlo a la ciudadanía para que seamos conscientes que hay que evitar aparcar en la plaza.

**Gilen:** La gestión de la plaza requiere un planteamiento integral. No es fácil cambiar los hábitos de toda una vida. Se deberá trabajar con la ciudadanía y realizar más de una reunión informativa explicando cuál es el objetivo de cada medida y cómo se quiere funcionar en cada uno de los espacios. Estoy totalmente de acuerdo en medir los tiempos, en cómo tomamos las decisiones y cómo compartimos esa información con la ciudadanía. Esa es la idea.

**Gilen:** ¿Alguna otra aportación?



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15

**Iñigo:** Guk adierazi nahi dugu kontziente garela Debako Udalak duen egoera delikatuaz, eta horrek tasen fiskalitatean duen eragina, baina uste dugu diru-bilketaren igoerak zuzenean eragiten diola pertsonen eta familien ekonomiari. Osasun- eta ekonomia krisiaren testuinguru honetan, proposamen hau ez da batere egokia, gure ikuspuntutik.

Gure ustez, egokiagoa izango zen tasak bere horretan eusteko proposamen bat, Elgoibar, Mutriku, Zumaia eta Eibarko udalerrien kasuan bezala.

Uste dugu ez dela unea, eta beraz hau ez babestea izango da gure jarrera.

**Itziar:** Hau lotsagarria iruditzen zait bi bilera eta beste bi ogasun batzorderen ondoren, sekula ez duzue proposamenik ekartzen. Nik gogoratzen dudan bakarra, aurrekontuetan, bukaeran, eta gainera zela *de chiste*, plaza muntatzeko 5.000€ gorde nahi zenituzten, ez daukana zentzurik... Gainontzekotan sekula ez duzue proposamenik ekartzen.

Lau aukera egon dira. Debarren Ahotsak proposatu du, zuek ez duzue ezer esaten eta azken momentuan etortzen zarete esanez ez duzuela onartuko. Hau bat.

Eta bigarrena: herritarrei zertan afektatzen die?. OHZren igoera bigarren etxebizitzarentzat da. Lokal komertzialak erabilera ez komertziala dutenei jaitsi egiten zaie. Eta garajeetakoa eguneratze minimoak dira, urte askoan egin gabe zeudenak. Egia da aurreko legealdian remanente handia zegoela, baino eguneraketa beti egin behar da. Udaletxe hau

**Iñigo:** Nosotros queremos manifestar que somos conscientes de la delicada situación que soporta el Ayuntamiento de Deba y su repercusión en la fiscalidad de las tasas, pero creemos que el incremento de recaudación afecta directamente a la economía de las personas y familias. En este contexto de crisis sanitaria y económica esta propuesta no es nada oportuna desde nuestro punto de vista. Hubiera sido más adecuado una propuesta de contención de tasas, como es el caso de municipios como Elgoibar, Mutriku, Zumaia, Eibar...

Creemos que no es el momento, por lo que nuestra posición va ser la de no apoyarla.

**Itziar:** Esto me parece vergonzoso, después de dos reuniones de hacienda en las que no habéis traído ninguna propuesta. La única propuesta que yo recuerdo fue en los presupuestos, justo al final, que además era de chiste, que queríais reservar 5.000€ para el montaje de la plaza, que no tiene sentido... En el resto nunca habéis traído ninguna propuesta.

Había cuatro opciones. El grupo Debarren Ahotsa ha hecho sus propuestas, pero vosotros no habéis dicho nada y en el último momento venís diciendo que no lo vais a aceptar. Esto en primer lugar.

La segunda: ¿En qué afecta esto a la ciudadanía? La subida del IBI es únicamente para las segundas viviendas. A los locales comerciales de uso no comercial se les baja la tasa, y lo de los garajes es una actualización mínima, que llevaba muchos años sin hacerse. Es cierto que había un importante remanente de la legislatura anterior, pero es necesario actualizar.



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15

orokorrean XX. mendean dago eta bada garaia XXI. mendera etortzeko. Lau aldiz bildu eta plenorarte ezer ez esatea lotsagarria iruditzen zait. Etxeko lanak ere egin behar dira.

**Iñigo:** Hau errespetuzko esparru batean eztabaidatu nahiko nuke. Proposamena egite hutsa oso gaizki iruditzen zaigula esan nahi det. Elkarlanean aritu gara eta bestelako gauzak egin ditugu. Guk ekintzak adierazten ditugu, eta ikusten dugu ez dela inongo eroberia, inguruko herriak beste era batera jokatzen ari direlako. Ez dugula lehenago esan?, ados. Egoera ez da egokia ekonomian, familieta... sakontzeko. Beste politika batzuk lantzen hasi behar gera: jarduera ekonomikoa indartzea, landajarduera, industria-jarduera... lan egin dezagun diru-sarrera bermatua izan dezagun urte askoren zehar, eta ez erreakzionatzea egoera baten aurrean. Gure ustez, ez da zuzena, eta horrela jarduten dugu.

**Itziar:** De chiste esateagatik barkamena eskatzen dizut, baina "lotsagarria" erabiltzea ez da inongo errespetu faltarik. Familientzat ez dago inongo kargarik gure proposamenarekin. Egin dugun guztia izan da eguneratu eta inguruko herrikoekin parean jarri. Adibidez, hilerrako tasak azken 15-20 urtetan eguneratu gabe egon dira. Ikusten da garbi zein den zuen funtzionamendua: bukaerarte segi. Proposatzen zenuten elkarlana ikusten da ez dagoela. Etorri egiten zarete, baina proposamenak Debarren Ahotsak bakarrik ekartzen ditu. Erraza da esatea laguntzeko prest zaudetela, baina hori ekintzen bidez

Este ayuntamiento se encuentra en el siglo XX y ya va siendo hora de traerlo al XXI. Me parece vergonzoso que tras habernos reunido cuatro veces no hayáis dicho nada hasta el pleno. Debemos hacer los deberes.

**Iñigo:** Me gustaría debatir esto en un marco de respeto. Decir que el simple hecho de hacer la propuesta nos parece fatal. Hemos colaborado y hemos hecho otro tipo de cosas. Nosotros manifestamos los hechos, y vemos que no es ninguna locura porque pueblos de alrededor están actuando de otra manera. ¿Que no lo hemos dicho anteriormente? vale. La situación no es la adecuada para ahondar en la economía, las familias... Hay que empezar a trabajar otras políticas: el refuerzo de la actividad económica, actividad rural, industrial y trabajar para que tengamos un ingreso garantizado durante muchos años, y no reaccionar ante situaciones... Creemos que no es lo correcto, y como tal actuamos.

**Itziar:** Te pido disculpas por decir "de chiste" pero utilizar "vergonzoso" no es ninguna falta de respeto. En nuestra propuesta no hay ninguna carga para las familias. Todo lo que hemos hecho ha sido actualizar y ponernos parejos con otros pueblos. Por ejemplo, en el caso de las tasas del cementerio no se habían actualizado durante los últimos 15-20 años.

Se ve claramente cuál es vuestro funcionamiento: continuar hasta el final. El trabajo en equipo que proponíais no existe. Acudís, pero las propuestas únicamente las trae Debarren Ahotsak. Es fácil decir que estáis dispuestos a colaborar, pero eso se demuestra con



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15  
los actos. Cada uno tiene su propia  
opinión y es respetable.

ikusten da. Bakoitzak bere iritzia  
dauka eta errespetagarria da.

**Iñigo:** Ez dut epaituko zure jarrera,  
laburpen simple samarra egiten duzu.  
Nire ustez, ekarpen asko ekarri  
ditugu, eta lagundu egin dugu egin  
behar genuela uste izan dugunean.  
Kasu honetan, uste dugu ez dagoela  
egokitzat jotzen ditugun ildoetan.  
Guretzat askoz erosoagoa litzateke  
tasa horiek onartzea, baina ez.

**Itziar:** Orduan zergatik ez da egon  
ekarpenik zuen partetik? Ez duzuelako  
etxeko lanik egin. Zuen aldetik ez dut  
inongo proposamenik jaso, eta ni ez  
nago denbora galtzeko. Egin ditugu  
lau bilera zuen proposamenik gabe.  
Ondoren hona etorri hau esateko. Naiz  
eta kontra bozkatu, hori ez da  
helburua... Asko hitz egiten duzue,  
baina egin gero....

**Enrique:** Uler dezaket zuen  
eztabaida, baina ez du bozketa  
aldatuko. Ezta eguneratu gabe  
daudenak ere?

**Miren:** Proposamenaren aurka  
bozkatuko dugu.

**Gilen:** Nahiko bazenute proposamen  
bat aurkeztea irekita gaude; bere  
horretan dena uztea ezer ez egitea  
bezala da. Proposamen bat aurkeztu  
nahi baduzue, aukera duzue, bestela  
bozkatu egingo dugu.

Bozkaren emaitza:

Aldeko bozkak: 10 (EH Bildu eta  
Debarren Ahotsa).

Kontrako bozkak: 3 (EAJ-PNV).

**Iñigo:** No voy a juzgar vuestra postura;  
haces un resumen bastante simple. En  
mi opinión hemos traído muchas  
aportaciones y hemos colaborado  
cuando hemos considerado que  
debíamos hacerlo. En este caso,  
pensamos que no está en las líneas que  
consideramos adecuadas. Para  
nosotros sería mucho más cómodo  
aprobar estas tasas, pero no.

**Itziar:** Entonces, ¿por qué no habéis  
traído vuestras propuestas? Porque no  
habéis hecho los deberes. No he  
recibido ninguna propuesta vuestra, y  
yo no estoy para perder el tiempo.  
Hemos hecho cuatro reuniones sin  
ninguna propuesta vuestra y luego  
venís aquí a decir esto. Aunque votéis  
en contra ese no es el objetivo....  
Habláis mucho pero luego hacer....

**Enrique:** Puedo entender vuestra  
discusión, pero no va a cambiar la  
votación. ¿Los que estén  
desactualizados tampoco?

**Miren:** Votamos en contra de esta  
propuesta.

**Gilen:** Si quisierais, estamos abiertos a  
presentar una propuesta; dejar todo  
ahí es como no hacer nada. Si queréis  
presentar una propuesta, podéis  
hacerlo, si no, votaremos

Resultado de la votación:

Votos a favor: 10 (EH Bildu y Debarren  
Ahotsa).

Votos en contra: 3 (EAJ-PNV).



DEBAKO UDALA

2020SPL0010

10.BILERA: EZOHIKOA 2020/10/15

**Osoko Bilkuraz gehiengo absolutuz 2021eko Ordenantza Fiskalak onartu ditu.**

**El Pleno aprueba por mayoría absoluta las Ordenanzas fiscales del año 2021.**

### **3.- Tasen hobariak COVID-19 onartzea, hala badagokio**

**Itziar:** Aste honetako ogasun batzordean ez, aurreko ogasun batzordean begiratu genuen. Hartu diren erabakiak izan dira itxita egon diren komertzio eta ostalariei zergak salbuestea: hondakinen zerga murriztea... Hartutako erabakiak bildu ditugu.

### **3. Aprobar, si procede, las bonificaciones de tasas COVID-19**

**Itziar:** Lo revisamos en la comisión de hacienda, no en la de esta semana, en la anterior. Las decisiones tomadas han sido eximirles de las tasas a aquellos comercios bares y restauración que han permanecido cerrados: reducir la tasa de las basuras...

Hemos recogido los acuerdos adoptados.

**Gilen:** Ekarpenik?

**Gilen:** ¿Algo que añadir?

**Bozkatu ondoren, Osoko Bilkurak aho batez onartzen du Tasen hobariak COVID-19.**

**Sometido a votación, el Pleno aprueba por unanimidad las bonificaciones de tasas COVID-19.**

**Gilen:** Horrenbestez bukatutzat ematen dugu gaurko Osoko Bilkura.

**Gilen:** Sin más temas que tratar damos por finalizado el pleno de hoy.

Jorge González Endemaño  
Idazkaria / Secretario



Gilen Garcia Boyra  
Alkatea / Alcalde

